



Smartphonea ezagutuz

Beldurrik ez

Beldurra ematen al du smartphoneak? Ernegatu egiten al du nahi bezala erabiltzen ez jakiteak? "Ematen al du ez dela espero zena"? Ba, LASAI, teknologia berriei hurbiltzen den jende nagusi askori gertatzen zaio.

Ikustekoa da aldiz gazteek zein ondo moldatzen diren beraiekin! Zelan liteke posible horren ondo moldatzea? Beldurrik ez diotelako, agian? Ba, bai... seguruenen arrazoi nagusietako bat da EZ DUTELA BELDURRIK probatzeko, ukitzeko edo erratzeko. Modu batera lortzen ez badute, beste batera saiatzen dira, eta, bestela, beste batera.

Normala da, 10 urte eskas dituzte mugikor horiek, eta historian inoiz ez da teknologia bat horren azkar hedatu. Beraz, normala da ezustean harrapatzea.

Smartphoneak gauza mordo bat egin dezake, baita ere telefonoz hitz egiteko.

Jakin behar duzun lehenengo gauza da smartphone edo telefono adimendun bat egiaz ez dela telefono bat, ORDENAGAILU bat baizik, Internetera konektatuta dagoena, eta barruan teknologia ugari duena.

Smartphoneak gauza mordo bat egin dezake, eta horietako batzuk egiten badakizu: mezuak bidali, argazkiak edo bideoak egin eta abar. Beste gauza pila bat ere egin ditzake, agian ezagutzen ez dituzunak, adibidez, hartu nahi duzun autobusa noiz igaroko den jakinaraztea, norbaiten urtebetetzea gogoraraztea, hitzaldi bat noiz dagoen edo ikusi nahi zenuen film hori noiz estreinatuko den esatea, irekitako botikarik hurbilena non dagoen jakinaraztea eta abar.

Berdinak al dira smartphone guztiak? Ba, ez. Hasteko, bi familia handi daude: "Android" eta "iPhone" (sagartxoarena). Saldutako smartphone gehien-gehienak Android dira, baina hemen esandakoak biezat balio du. Prezioak ere kontu garrantzitsua dira, noski; oro har, zenbat eta garestiago, orduan

eta azkarrago, orduan eta pantaila hobe, kamara hobe, memoria handiagoa eta abar.

Memorian aplikazioak instalatzen ditugu, bertan gordetzen dira argazkiak eta bideoak, eta ia beti konturatu gabe betetzen dugu. Smartphonea berehala arazoak ematen hasterik eta txiki geratzerik nahi ez baduzu, erosi ezazu barruko memoria nahikoa duen bat (16 GB, gutxienez).

Garbigailuak baditu bere programak, ezta? Smartphoneak baita ere. Milaka eta milaka aplikazio daude, gauza pilo bat egiteko ba-

lio dutenak. Batzuk ondo daude, besteak, ez horrenbeste. Batzuk ordaindu egin behar dira, gehienak ez... MUNDU BAT! Etengabe aldatzen ari den mundu bat.

Ukitu ezazu zure smartphonea

Saiatu zaitez zure smartphonea ezagutzen, ukitu eta ikertu. Ez da etsai bat. Ukitzeko beldur badago, inoiz ez zaio etekinik aterako, garbi izan. BERAZ EZ IZAN BELDURRIK.

Pantailan dauden marrazkitxoak ikonoak dira, ukitzen dituzunean zerbait gertatzen da. Horiek ukitzeko hainbat modu daude, ordea. Sakatuta eta kito, segundo batez-edo, ikonoaren aplikazioa irekitzen dugu. Denbora luzeagoz ukitzen badugu, ikono hori hautatzen ari gara, eta menu txiki bat irekiko zaigu, gauza gehiago egin ahal izateko. Pantaila ukitzeko hirugarren modua "arrastatzea" da, pantaila liburu baten orrialdea balitz bezala, ezkerrean edo eskuinera.



Smartphonea makina bat da, gauzak egiteko programak edo aplikazioak (app-ak) behar dituena.

Behin eta berriz aritu behar zara: modu batera lortzen ez baduzu, bestera. Inoiz ez duzu smartphonea ukitze hutsez matxuratuko. Gertatu daitekeen okerreña da mugikorra txineraz jartzea, eta atzerako bidea egiten ez jakitea. Dena den, zuk baino gehixeago dakienez norbaitek lagundu ahal izango dizu, eta, bestela, smartphoneak berekin dakar bere hasierako egoerara bueltatzeko aukera, erosi zenueneko egoerara.

Internetera konektatzea

Internetik gabeko smartphonea gurpilik gabeko bizikleta baten modukoa da. Smartphonea Internetera konektatzeko diseinatuta dago. Nola konektatu Internetera, baina? Bi modu daude, bi soilik, eta ezin dira aldi berean erabili: WIFI sare baten bitartez, edo gure telefono konpainiaren DATUEN bitartez. Kontuz, Internetera konektatuta gauden bitartean, Internet erabiltzen ari gara beti, gehiago edo gutxiago.

WiFi gaitik gauza bera ordainduko da, eta berdin dio Interneten asko edo gutxi "nabigatu duzun", bideo asko edo gutxi ikusi di-

tuzun. WiFi zuk ordaintzen duzu, agian, zure bada, edo baliteke dohainik konektatzea senitartekoren baten WiFira, tabernakora, elkartekora eta abarretara.


DATUena beste kontu bat da. Internetera konektatuta egoteak datuak kontsumitzen ditu, mezuak bidaltzeak ere bai, bideoak ikusteak datu asko kontsumitzen ditu. Ez badakizu zure telefono konpainiarekin datuak kontratatuta dituzun ala ez, hortxe duzu zure lehen lana: INFORMATU, faktura begiratu, dendan galdetu... jakin beharra daukazu datu tarifa kontratatuta daukazu eta nolakoa den. Datuak mugatuta daude.

Nola dakigu Internetera konektatuta gauden, eta egonez gero, WiFi edo datuetara konektatuta gauden?

Gure smartphonearen goiko aldean dagoen ikurtxo bati erreparatu beharko diogu. Sinbolo hau agertzen bada, esan nahi du dagoneko WiFi sare batera konektatuta gaudela. Aldiz, hizkitxo batzuk agertzen



badira (4G, 3G eta abar), eta ondoan gure konpainiaren izena agertzen bada (Euskaltel, Vodafone eta abar), Internetera kontratatutako datuen bitartez konektatuta gaude.



Aplikazioak



APLIKAZIOAK

Smartphonea badator instalatutako aplikazio ugariekin (argazki kamera, egutegia, agenda eta abar), baina gakoa da zuk Internet bidez instalatzea zure intereseko aplikazioak. Gogoan izan, smartphonean instalatutako guztiak memorian lekua hartzen du, baina nahi duzunean desinstalatu dezakezu.

Aplikazioak Interneteko denda handian lortzen dira. Google Play Androiden edo App Store iPhoneen. Denda honetara sartzeko Internet beharko duzu, aplikazioak ez baitaude zure smartphonean, baizik eta Interneten, hodeian.



WHATSAPP


Whatsapp, aplikazioen erregina. Ia denek dute instalatuta, eta aditza ere asmatu behar izan dugu, "whatsappeatu". Zergatik izan du arrakasta Whatsapppek? Oso erraza delako erabiltzen, eta aukera ematen duelako testu mezuak, argazkiak, bideoak eta ahots mezuak bidaltzeko eta jasotzeko, deiak eta bideodeiak egiteko, kontaktuak kudeatzeko eta abarretarako... eta guztia dohainik. Hori bai, hori dena egin daiteke soilik aplikazioa instalatuta eta Interneterako konexioa duten smartphoneen artean.

Aplikazioak aukera ematen du gauza ugari bidaltzeko eta jasotzeko (testua, argazkiak, bideoak eta abar). Teklatuarekin ondo moldatzen ez direnentzat interesgarria izan daiteke ahazko mezuak bidaltzea.

Teklatua ukitu gabe komunikatzea!

Pertsona bat edo talde bat (txat bat) hautatzen duzunean mezu bat bidaltzeko, "Testua idatzi" aukeraren eskuinean mikrofono baten ikurra agertzen zaizu. Sakatzen ari zaren bitartean grabatzen arituko da, eta askatutakoan mezua bidaltzeko prest izango da. Hau da, pentsatu hitz egin aurretik. Sakatu, esan beharrekoak eta askatu mikrofonoa. Ahazko mezua taldeari edo pertsona hartzaileari bidaliko zaio, eta ahal duenean entzungo du.





GOOGLE ASSISTANT

Google gauza ugari da aldi berean. Helbide elektronikoa bat da, baina zure Interneteko kontua ere bada, bilatzaile bat da, zure smartphonearen, argazkien, kontaktuen eta abarren itxuraren atzean dago. Gainera, laguntzaile moduko bat ere bada, hitz egite hutsarekin ondo samar funtzionatzen duena. Interesgarria da hori zuretzat.

Zure smartphonearen lekuren batean "Google" ikusiko duzu, mikrofono baten ondoan. Aplikazio estandarra da, eta gauza ugari egiten ditu, baina "Google Assistant" urrats bat harago doa. Doako aplikazio horrek bere erantzunekin harritzen du. Jolastu harekin, galdetu iezazkiozu gauzak. Guk ere ez dakigu egin dezakeen guztia, hedatzen ari baita etengabe. Mikrofonoa ukitzen baduzu


Google Assistant hitz egite hutsarekin ondo samar funtzionatzen duena. Interesgarria da hori zuretzat.

(Google Assistantekin hitz egin), pare bat segundo itxaron mikrofonoa aktibatu arte, eta smartphonea oso erabilgarria izango zaizu, hari hitz egite hutsarekin.


Gaur egun ulertzen dituen gauzen artean daude honako hauek:

- Deitu "fulanita".
- Gogorazi iezadazu bihar 10etan medikuarenera joan behar dudala.
- Botika hurbilena.
- ...

Egin dezakeen lanen zerrenda handitzen ari da etengabe!



TWITTER



Enpresa batek Twitterren jarraitzea nahi duela, telebistako programa bati buruzko iritzia eman dezakezula Twitterren, edo istorio bat *trending topic* bihurtu dela (irakurriena

edota entzunena), egunero entzuten ohi den zerbait da.

Jakin behar duzun lehenengo gauza hau da: Twitter doakoa da, bai, eta hura erabiltzeko lehenik kontu bat sortu behar duzu aplikazioan. Kontu bat pertsona batena izan daiteke, enpresa batena, futbol talde batena, udal batena eta abarrena. Edonork eduki dezake Twitter kontu bat. Kontu horiek guztiak, munduko guztiak, smartphonearekin aurkitu daitezke. Hain zuzen, "gehiegi" daude, zarata handia dago, eta nahaspila horretatik hautatu behar duzu zer jarraitu nahi duzun, hau da, zer irakurri nahi duzun.

Twitter doakoa da, bai, eta hura erabiltzeko lehenik kontu bat sortu behar duzu.

Gure ustez, adineko pertsona bat bazara eta Getxon bizi bazara, ondo legoke zure kontua erabiltzea Getxon gertatzen den ezer ez galtzeko, agenda kulturala ezagutzeko eta parte hartzeko aukeren berri izateko. @getxokultura, @GetxoUdala, @GetxoKirolak, @GetxoGoblrekia eta horrelako kontuei jarraitu besterik ez daukazu.



"MEDICAMENTO ACCESIBLE PLUS" APLIKAZIOA

Zenbat botika dituzu etxean, zertarako balio duten eta nola hartu gogoratu gabe? Lasai, gure smartphonetan irtenbidea daukagu, etxean dituzun medikamentu guztien informazio eguneratu eta zehatza edukitzeko.

Hori egiteko aplikazioa *Medicamento Accesible Plus* da (bai, doakoa da, gainera). Aplikazio horrek smartphonearen kamera eskaner bihurtzen du, supermerkatuetako kutxetako antzekoa. Barra kodea kameraren aurrean jarri eta pantailan berehala ikusiko duzu medikamentuaren prospektua, laburtuta eta letra handiz.

Aplikazioa instalatzen duzunean laguntzaile bat agertuko zaizu, urratsez urrats eskaneatzen lagunduko dizuna. Estalkia ez baduzu ere, lasai, bilaketa medikamentuaren izenarekin ere egin baitaiteke. Aplikazioak ematen dituen gainerako aukerak zuri aurkitzen utziko dizugu.

Coloque un código de barras del medicamento en el interior del rectángulo del visor para escanear.



Aplikazio horrek smartphonearen kamera eskaner bihurtzen du, supermerkatuetako kutxetako antzekoa.



Bazenekien kontsultatu eta ikusi dezakezula zein ordu dauden libre familia medikuari hitzordua eskatzeko? Bazenekien kontsulta telefono bidez egin dezakezula medikuarekin aurrez aurre egin beharrean? Dagoneko ez da beharrezkoa itxarotea ambulatorioan hitzordua eskatzeko. Nahikoa da smartphonearekin hautatzea hoberen dartzekun eguna eta ordua, medikuarenera joateko edo hark zuri deitzeko. Zer behar duzu horretarako, ordea? Nahikoa da Eusko Jaurlaritzaren aplikazio doakoa eta ofiziala deskargatzea eta instalatzea: Osakidetza Atari Mugikorra.

Aplikazioarekin menu nagusi batera iritsiko zara, honako aukera hauek izango dituenara: Osasun karpeta, aurreko hitzordua, osasun gomendioak eta abar.

Aukeren artean nabarmendu nahi dugu "Aurreko Hitzordua", aukera emango baitizu familia medikuarekin, pediatararekin edo erizainarekin hitzordua eskatzeko, kontsultatzeko eta ezeztatzeko. Hori bai, aukera horietara guztietara sartu ahal izateko eskura izan be-

harko duzu Osasun Txartel Indibiduala (OTI), eta aukera hori erabiltzeko eskatzen dizkizun datuak bete beharko dituzu.

Erabili dezakezun beste aukera bat da Osasun Karpeta, baina, adi! erabili ahal izateko, zerbitzu horri alta eman beharko diozu osasun zentroan edo ambulatorioan, eta sartzeko gakoak eskatu beharko dituzu. Atal horretan modu seguru eta konfidentzian kontsultatu ahal izango duzu zure osasun informazioa: txostenak, medikamentuak, hurrengo hitzordua eta abar. Horrez gain, zure osasunerako eduki interesgarrietara sartu ahal izango duzu.

Aurreko Hitzordua aukera emango dizu familia medikuarekin, pediatararekin edo erizainarekin hitzordua eskatzeko.

Bizkaibusen autobusei buruzko azken orduko informazioa jakin nahi al duzu? Lineen eta geralekuen zerrenda kontsultatu nahi duzu? Ibilbide osoak eta ordutegiak jakin nahi al dituzu? Instalatu ezazu Bizkaibus aplikazioa; Bizkaiko Foru Aldundiarena da, doakoa eta ofiziala. Aplikazio horren bitartez ikusi ahal izango dituzu zure kokapenetik gertuen dauden geralekuak, eta hurrengo autobusa iritsi arte itxaron beharrezkoa ere kontsultatu daiteke. Honako leku hauetara iristeko dauden lineak ere kontsultatu daitezke: Loiuko aireportua, tren geltokiak, metro geltokiak, hondartzak, etab...

Geraleku bat sarri erabiltzen baduzu, zure geraleku gustukoeneren zerrendara gehitu dezakezu. Horrela, azkar eta eroso kontsultatu ahal izango duzu zenbat denbora itxaron behar duzun autobusa geraleku horretara iritsi arte.

Hori ez da guztia, gainerako aplikazioek bezala, aukera mordoa du, gutxika-gutxika

aurkituko dituzunak espezialista bilakatu arte. Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza telefono bat eskura jarri du aplikazioaren funtzionamendua ulertzen laguntzeko eta dauzkan aukerak erabiltzeko buruzko gomendioak emateko. Bizkaibusen Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren telefonoa 946 125 555 da, eta behar besteko laguntza ematen du aplikazio hori instalatzeko eta erabiltzeko.

Aplikazio horren bitartez ikusi ahal izango dituzu zure kokapenetik gertuen dauden geralekuak, eta hurrengo autobusa iritsi arte itxaron beharrezkoa ere kontsultatu daiteke.

